DOKUMENTAZIOA ZUZENKETA

ONDARROAKO ERTZAIN-ETXEAK ITSAS ETA LEHORREKO JABARI PUBLIKOA OKUPATZEKO ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN ESPEDIENTEA

G. ERREF: **Aaaa_Res_3000/26_15**
GAIA: **Espedientearen hasiera eta zuzenketa**

1. Aurrekariak

Ondarroako Ertzain-etxea zati batean Itsas eta Lehorreko Jabari Publikoaren barruan kokatutako lurzoruetan dago. Lurzoru horien okupazioa Kostaldearen Zuzendaritza Nagusiak 1994. urtean emandako administrazio-emakida baten bidez baimendu zen, Ertzain-etxea eraiki eta bertan jarduera gauzatzeko.

Emakidak 514 m²-ko azalera okupatzeko baimena eman zuen, hogeita hamar (30) urteko eperako. Harrezkero, baimendutako erabilera etengabe mantendu da, funtsezko aldaketarik egin gabe.

Denbora horretan guztian instalazioak etenik gabe eman du herritarren segurtasunaren arloko funtsezko zerbitzu publikoa, Ondarroako udalerrian eta haren eragin-eremuan Ertzaintzari dagozkion eginkizunak betez.

Emakidaren indarraldia amaitu denez, administrazio-emakida berri bat izapidetzea dagokio Administrazioari, orain arteko erabilera publikoa eta okupatutako azalera berberak mantenduz, Itsas eta Lehorreko Jabari Publikoaren gainean azalera handitu gabe eta instalazio berririk egin gabe.

Okupazioak ezinbestekoa izaten jarraitzen du herritarren segurtasunaren arloko zerbitzu publikoa bermatzeko, eta ez da funtsezko aldaketarik gertatu 1994an emandako emakida justifikatu zuten baldintzekiko.

Interes publikoaren justifikazioa

Eskatutako okupazioaren helburua da Ertzaintzak, Euskadiko polizia integral gisa, legez esleituta dituen eskumenak behar bezala gauzatzeko beharrezkoa den azpiegitura publiko funtsezko bati eustea.

Instalazio horrek, besteak beste, honako eginkizun hauek betetzen ditu:

- Herritarren segurtasuna.
- Polizia judiziala.
- Administrazio-polizia.

- Herritarren arreta.
- Portuko azpiegituren eta espazioen babesa.
- Larrialdietako gainerako zerbitzu publikoekin koordinazio operatiboa.

Gaur egungo kokapena estrategikoa da, portu-ingurunetik gertu dagoelako eta Ondarroako udalerrian nahiz haren eragin-eremuan polizia-estaldura egokia bermatzen duelako.

2. Instalazioen justifikazio eta deskribapen memoria

Ondarroako Ertzain-etxea Ondarroako udalerriko Zaldupe eremuan dago, eta partzialki Itsas eta Lehorreko Jabari Publikoaren barruan kokatutako lurzati batean eraikita dago.

Hirigintza-justifikazioa

Ondarroako Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioek Ertzain-etxea kokatzen den lurzatiari aplikatu beharreko hirigintza-parametroak ezartzen dituzte.

Lurzatia Ekipamenduen Sistema Orokor gisa sailkatuta dago, eta indarrean dagoen hirigintza-plangintzak baimendutako erabileren artean sartzen da Administrazioaren Zerbitzu Publikoetarako erabilera (B motako ekipamendua).

Eraikigarritasunari dagokionez, plangintzak gehienez 1,95 m²/m²-ko koefizientea ezartzen du. Lurzatiak 1.889,47 m²-ko azalera duenez, gehienezko eraikigarritasuna 3.684,47 m² eraiki da.

Eraikinaren azalera eraikia 3.683,12 m²-koa denez, indarrean dagoen hirigintza-araudiak ezarritako mugen barruan dago.

Lurzatiaren okupazioari dagokionez, plangintzak gehienez 0,55 m²/m² onartzen du; eraikinaren benetako okupazioa, berriz, 0,54 m²/m²-koa da. Beraz, parametro hori ere betetzen da.


Era berean, baimendutako gehieneko altuera 14,50 metrokoa da, eta eraikinaren kotarik kaskarrena dorrearen teilatu-hegalari dagokiona da, 14,30 metroko altuerarekin; beraz, hori ere araudiari egokitzen zaio.

Halaber, eraikinak plangintzak baimentzen duen gehieneko solairu kopurua errespetatzen du (sotoa, beheko solairua, sestra gaineko bi solairu eta hirugarren solairua dorre moduan), baita autobiaren mugarekiko ezarritako 5 metroko gutxieneko atzeraemagunea ere.

Ertzain-etxearen eraikuntza

Ondarroako Ertzain-etxearen eraikuntza-lanak 1996ko apirilaren 26an amaitu ziren, onartutako exekuzio-proiektuarekin bat etorriz.

Ondoren, 1996ko maiatzaren 27an, Ondarroako Udalak dagokion Jarduera Lizentzia eta Lehen Okupaziorako Lizentzia eman zituen, eta eraikina egun horretatik bertatik hasi zen zerbitzua ematen.



1.irudia Bizkaiko Foru Aldundiaren Katastroko Ondarroako Ertzain-etxearen orubea. Iturria: GeoEuskadi




2.irudia Ondarroako Ertzain-etxearen orubea. Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren Katastroa

Lursaila: 073 1001 26006	Azalera: 2.308,58 m^2	Hiri-lurzorua
Lursaila: 073 1001 26005	Azalera: 788,89 m^2	Hiri-lurzorua

Eskabide honen helburua ez da obra berriak egitea, instalazioak handitzea edo lehendik dauden eraikinak aldatzea; ezta Itsas eta Lehorreko Jabari Publikoaren gaineko okupatutako azalera handitzea ere. Eskabide honen helburu bakarra da administrazio-emakida berri bat lortzea, 1994an emandako emakidaren indarraldia amaitu ondoren gaur egun dagoen okupazioari eutsi ahal izateko.

Instalazioek hasieratik baimendutako ekipamendu publikoaren erabilera bera mantentzen dute, eta ezinbestekoak dira Ondarroako udalerrian eta haren eragin-eremuan herritarren segurtasunaren zerbitzu publikoa ematen jarraitzeko.

3. Kokalekuaren planoa




3. irudia. Ondarroako Ertzain-etxearen kokapena eta eraikinaren ikuspegia. Iturria: GeoEuskadi.

I. eranskin gisa eraikinean egindako azken jarduketari dagozkion planoak gehitzen dira. Jarduketa horren bidez, 2015ean, lurzatiaren itxitura berritu zen bere bi fatxada nagusietan, eta herritarrak hartzeko eta artatzeko barne-eremua berritu eta handitu zen.

- Urbanizazioa. Aurreikusitako egoera. **E 1/300**
- Urbanizazioa. Lerrokadurak. Aurreikusitako egoera. **E 1/300**
- Altxaerak. Aurreikusitako egoera. **E 1/200**
- Itxituraren altxaerak. Aurreikusitako egoera. **E 1/200**

4. Ertzain-etxearen okupazioaren justifikazioa



4. irudia. Ondarroako Ertzain-etxean Itsas eta Lehorreko Jabari Publikoaren mugak.*Iturria: GeoEuskadi – Estatuko IDEE*.

Limites



Ertzain-etxeak itsas-lehorreko jabari publikoan okupatutako azalera mugatzea, GeoEuskadiren kartografia ofizialetik abiatuta (3. irudia). Kartografia horren gainean egindako neurketak itsas-lehorreko jabari publikoaren barruan dagoen **420m2**-ko azalera zehazten du, gutxi gorabehera..

5. Kostaldeei buruzko Legea betetzea

Emakida-proiektu honen irismenak eta edukiak kostaldeei buruz indarrean dagoen araudia betetzen dute, eta hura garatzeko eta aplikatzeko emandako legezko xedapen orokor eta espezifikoei egokitzen zaizkie. Hori guztia Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 44.7 artikuluan eta urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kostaldeei buruzko Erregelamendu Orokorraren 97. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bereziki, jarduketak honako baldintza hauek betetzen ditu:

- Jatorrizko emakidan baimendutako ekipamendu publikoaren erabilera bera mantentzen du.
- Ez du handitzen Itsas eta Lehorreko Jabari Publikoaren gaineko okupatutako azalera.
- Ez ditu aldatzen lehendik dauden instalazioen funtsezko ezaugarriak.
- Ez du eragin berririk sortzen Itsas eta Lehorreko Jabari Publikoan, ezta legez ezarritako zortasun-eremuetan ere.
- Herritarren segurtasunaren funtsezko zerbitzu publikoaren jarraitutasuna bermatzen du.

Horregatik guztiagatik, proiektu honen irismena eta edukia bat datoz Kostaldeei buruzko Legearen **44.7 artikuluan eta Kostaldeei buruzko Erregelamendu Orokorraren 97. artikuluan** xedatutakoarekin, bai eta aplikatu beharreko gainerako araudi sektorialarekin ere.

6. Klima-aldaketak izan ditzakeen ondorioen ebaluazioa

Eskatutako jarduketa Ondarroako ertzain-etxeari dagokion okupazioa mantentzean datza soil-soilik, eraikigarritasuna handitu gabe, instalazioak handitu gabe eta itsas-lehorreko jabari publikoaren okupazioa handitu gabe.

Hauek dira klima-aldaketarekin lotutako arrisku nagusiak kostaldearentzat:

- Itsasoaren batez besteko mailaren igoera.
- Itsas denboraleen maiztasuna eta intentsitatea handitzea.
- Prezipitazio handiko gertakariak ugaritzea.

- Muturreko fenomeno meteorologikoak areagotzea.


Hala ere, administrazio eskudunek egindako kartografia ofiziala aztertuta, ondoriozta daiteke ertzain-etxeak okupatutako lurzatia ez dagoela 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako kostaldeko uholde-arriskuagatik urpean gera daitezkeen eremuen barruan, eta ez dagoela Uholde Arrisku Handiko Eremuen (UAPGG) barruan.



5. irudia. GeoEuskadi. Kostaldeko uholde-arriskua 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborarako.

Bestalde, Era berean, euskal kostalderako egindako klima-aldaketara egokitzeko agertokiek erakusten dutenez, itsasoaren batez besteko mailaren hazkundearen aurreikuspenak kontuan hartuta ere, instalazioan garatutako jarduera bateragarria da aurreikusitako agertokiekin, eta ez da hauteman zerbitzuaren jarraitutasuna arriskuan jar dezakeen eraginik.

Kontuan hartu behar da, halaber, Ondarroako Ertzain-etxea larrialdien kudeaketarako eta herritarren babeserako funtsezko azpiegitura dela. Horretarako, fenomeno meteorologiko kaltegarrien aurrean jarduteko berariazko protokoloak eta autobabes-planak ditu, instalazioaren egokitzeko gaitasuna eta erresilientzia nabarmen indartzen dituztenak.



6. irudia. GeoEuskadi. Itsasoaren mailaren 1 eta 1,2 metroko igoeraren ondoriozko uholde-agertokiak.

Klima-aldaketaren aurreko kalte beratasun eta arrisku-indizeak. 2011-2040aldia.

Itsasoaren mailaren igoeraren ondoriozko uholde-arriskuaren indizeak. RCP 8.5 agertokiaren proiekzioa.

Ondorioz, aurreikus daitezkeen klima-aldaketaren ondorioek ez dute arriskuan jartzen eskabide honen xede den jardueraren bideragarritasuna, eta ez dute beharrezkoa egiten gaur egun dagoen Itsas eta Lehorreko Jabari Publikoaren okupazioan neurri osagarririk ezartzea; hori guztia etorkizunean araudia edo klima-agertokiak aldatzen badira hartu beharreko egokitzapen-neurrien kalterik gabe.

Ondorioa

Aztertutako dokumentaziotik ondorioztatzen da Ondarroako Ertzain-etxea lehendik dagoen eraikin publiko bat dela, onartutako exekuzio-proiektuaren arabera eraikia eta martxan jartzeko beharrezko udal-baimen guztiak dituena.

Ondorioz, behar bezala justifikatutzat jotzen da Ondarroako ertzain-etxeak itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeari eutsi behar diola, duela hogeita hamar urte baino gehiagotik dagoen instalazio publikoa delako, okupatutako azalera handitu gabe eta obra berriak egin gabe, eta erabilera hori ezinbestekoa delako herritarren segurtasunerako funtsezko zerbitzu publikoa emateko, kostaldeei buruz indarrean dagoen araudia ere betetzen duelako eta klima-aldaketaren ondorioz aurreikus daitezkeen egoerekin bateragarria delako.

Sorne Esturo Errazti - [redacted]
Fecha: 2026.07.08 09:53:04 +02'00'

Sorne Esturo Errazti
Azterlan eta proiektuen arloko burua